

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA**

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren iragarkia, 2021eko EPEaren administrari balioaniztunen 3 lanpostu hornitzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzeari, 2022ko EPEa onartzeari eta LZ aldatzeari buruzkoa.

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluak 2022ko apirilaren 7ko bileran honako puntu hauen inguruko erabakiak hartu zituen:

1. Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren plantillako langile lan-kontratudun finkoen lanpostuak behin betiko hornitzeko deialdiaren oinarri orokorrak onestea. I. eranskina.
2. Administrari Balioaniztunen 3 lanpostu (derrigorrezko 2. HE) oposizio-lehiaketa bidez eta barne-igoerako txandaren bidez betetzeko oinarri espezifikoak onestea (II. eranskina).
3. 2022ko Enplegu Publikoko Eskaintza onestea. Eskaintzan Gizarte Langile lanpostu bat sartuko da; hori 2018ko EPEan argitaratu zen (2019ko otsailaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean), baina ezeztatu egin zen eta hautaketa-prozesua honela bideratu da:
 - Gizarte Langilearen lanpostu bat (hornidura zk.: 2504.01, 2. taldea (A2), 23. maila, 3. HE eta derrigortasun data: 2022-12-31), egonkortze-prozeduraren bidez, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen 2. artikuluan jasotakoaren arabera.
4. Lanpostu Zerrendaren aldaketa onestea. Bertan talde profesionaletarako beharrezko titulazioak jasotzen dira, baita Gizarte Langintzako atala berriz diseinatze-ko aldaketak ere. Horiek Erakundearen Organigraman jasoko dira. III. eranskina.

Bilbon, 2022ko apirilaren 11n.—Zuzendari Nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga